BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1578

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 13koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinen bidez ebazten baita 2012-2013 ikasturtean ikastetxe publikoetan ikasketak egiten ari diren eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deialdia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko azaroaren 6ko Aginduaren bidez, aplikatu beharreko irizpideak arautu ziren, eta deialdia, Hezkuntza Administrazioak espresuki erabaki zuela-eta, itunpeko ikastetxeetan ikasketak egiten ari diren ikasleei zabaldu zitzaien.

Lurralde Historikoek egindako proposamenak aztertu eta aipatutako deialdian ezarritako irizpideak aplikatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdiko baldintzak bete dituzten Lurralde Historikoetako ikasleei laguntza ematea.

Ebazpen honen diru-zenbatekoa guztira 2.086.258,27 eurokoa da, honela banaturik:

Araba 267.024,72 euro.

Bizkaia 1.169.835,68 euro.

Gipuzkoa 649.397,87 euro.

Bigarrena.– Laguntza horien onuradun diren ikastetxeen zerrenda dagokion Lurralde Ordezkaritzako iragarki-oholean argitaratzea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 13a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
BEGOÑA GARAMENDI IBARRA.